


# 2015

INFLEXIO-PUNTUA  
URTEKO TXOSTENA





# 2015: INFLEXIO-PUNTUA

*“Iraganeko arrakastek ez dute inola ere ziurtatzen etorkizuna; erakunde osoaren ahaleginen eta konpromisoaren bidez eraikitzen da egunez egun etorkizuna”*

2015. urtea oso ekitaldi ona izan da; izan ere, inflexio-puntua ekarri du azken bi urteen aldean, guztira 153 milioi euroko galerak izan baikenituen bi urte horietan.

**“Petronor Barria”** Planaren baitan abian jarritako neurri operatiboei eta petrolio-produktuaren arteko diferentzial handiak eta petrolioaren prezio baxuak nagusitu direnoko merkatuaren abagune onari esker, etekinak lortu ditugu berriz ere, eta 197,7 milioi euroko irabaziak izan ditugu zergak kenduta.

Joera positibo hori sendotzeko unea da, eta horretarako, eraldaketa-prozesu sakonari ekin behar diogu. Helburu hori izanik, **PETRONOR 2020** Plan Estrategikoa zehaztu dugu.

Lau ildo estrategikoren inguruan egituratzen da plana:

**Kudeaketa eredia eta kultura eraldatzea**

**Eraginkortasuna modu iraunkorrean ahalik eta gehien hobetzea**

**Gure jardueraren eraginak gutxitzea eta gure ingurunearen garapenaren eragile nagusiak izatea**

**Berrikuntza kudeatzea: Berrikuntza irekia eta errentagarria**

Iraganeko arrakastek ez dute inola ere ziurtatzen etorkizuna; erakunde osoaren ahaleginen eta konpromisoaren bidez eraikitzen da egunez egun etorkizuna.

**EMILIANO LOPEZ ATXURRA,  
PETRONORREKO PRESIDENTEA**



# PETRONOR BARRIA EKIMENAK LEHEN EMAITZAK EKARRI DITU

*“Bidearen hastapenetan  
gaude, baina ziur gaude egun  
bide zuzena aukeratu dugula”*

2013ko amaieran, merkatuaren abagune zailean, Petronor Barria ekimena abiarazi genuen, eraginkorrakoak izateko hainbat neurri ezarrita: Dagoeneko haren fruituak jasotzen ari gara.

Energiaren eraginkortasuna eta ekoizpena hobetzeko arloetan abiarazitako proiektuek 100 milioi euro inguruko fruitua eman dute.

## **HONA HEMEN 2015EKO GERTAERA NABARMENAK:**

- Bihurketa-gunearen kudeaketa, batere istripurik gabekoa. Orotara 463.000 lan-ordu izan dira, 1.584 pertsona lanean eta guztira 48 milioi euroko gastua.
- Aseguratzaleek segurtasunaren inguruan eginiko auditoria; izan ere, mundu osoko findegiekin konparatzen gaituzte eta findegia segurtasunak «Ona» kalifikazioa merezi duela berretsi dute, aurreko ekitaldietan lorturiko kalifikazioa hobetu ondoren.
- XVI. Hitzarmen Kolektiboa sinatzea eta 45 operadore berri kontratatzea.
- CO2 isuriak gutxitzeko helburua lortzea, 2016. urterako ezarria: “Isuriak %20 gutxitzea oinarri homogeneoetan 2010ekoekin alderatuta”. Xede berria zehaztu da: %35 gutxitzea 2020rako.

Eskerrak eman nahi dizkiet Petronor proiektuko partaideak diren guztiei beren laguntzagatik eta konpromisoagatik. “Bidearen hastapenetan gaude, baina ziur gaude egun bide zuzena aukeratu dugula”.

**ANDREU PUÑET,**  
PETRONORREKO KONTSEILARI DELEGATUA



# PETRONOR IKUSKERA

## 2020



### **ENERGIA ENPRESA**

ENERGIA IRTENBIDERIK HOBERENAK  
GARATZEN DITUGU



### **ENPRESA SEGURUA**

EZ DUGU ISTRIPURIK.



### **ENPRESA ERAGINKORRA**

GEHIAGO LORTZEN DUGU GUTXIAGOREKIN.



### **ENPRESA BERRITZAILEA**


BESTELA EGITEN DITUGU GAUZAK.  
GAUZA EZBERDINAK EGITEN DITUGU.



### **ENPRESA IRAUNKORRA**

AUZOKIDE ONA. ERAGINAK GUTXITU ETA  
INGURUNEAREN GARAPENA BULTZATZEN DUGU.

*Energiaren aldetik segurua eta eraginkortasun handiko enpresa da gurea, bere ekoizpen eta kudeaketa prozesu guztietan etengabeko berrikuntzarekin konprometitua. Bere jardueraren ondorioak gutxitzen duen auzokide ona, bere ingurunearen garapenaren eragilea eta negozio aukera berriak bilatzeko erreferentea.*



# PETRONORREN ZIFRAK

## ZER LORTU DUGU 2015EAN

GUZTIRA  
**1042** PERTSONAKO  
PLANTILLA  
**54** LANGILE BERRI

ISTRIPURIK **BAT**  
BIHURKETA-GUNEA **ERE EZ**

ASEGURATZAILEEN  
KALIFIKAZIOA: **ONA**

**%20**  
**GUTXITZEA**  
**CO<sub>2</sub> ISURIAK**  
OINARRI HOMOGENEOETAN  
(2010EKOAREN ALDEAN)


**SORTUTAKO ZERGAK**  
**1.356** MILIOI  
EURO

PETRONORREK FORU OGASUNAREN  
**ZERGA-BILKETAN**  
EMATEN DUEN ZENBATEKOA **%11,3**

BABESA ETA  
MEZENASGOA

**117**

KIROL, KULTURA ETA GIZARTE  
**ELKARTE**



# PETRONORREN ZIFRAK

## ZER LORTU DUGU 2015EAN

PROZESATURIKO  
**9,9** GORDINKIA  
MILIOI TONA

PORTUKO  
TRAFIKOA **14,9** MILIOI TONA  
**% 46** GUZTIZKO  
TRAFIKOAREN | **402**  
ITSASONTZI

**1,8** MILIOI TONA  
GASOLINA

MILIOI TONA  
GASOLIO **4,8**

**36** MILIOI EUROKO INBERTSIOA

MANTENTZE-LANETAN **52** MILIOI  
EURO

**197,7** MILIOI  
EUROKO ETEKINA



# AURKIBIDEA

---

1 ABAGUNEA:  
PETROLIOAREN PREZIOA  
14.

---

2 FINDEGIKO  
JARDUERA  
15.

---

3 INBERTSIOA  
19.

---

4 SEGURTASUNA  
20.

---

5 INGURUMENA  
21.

---

6 PERTSONAK  
22.

---

7 KONPROMISOA  
INGURUNEAREKIN  
23.

---

8 FILIALA  
23.

---

9 GOBERNAMENDUA  
25.

---

10 DATU  
EKONOMIKOAK  
26.

---


11 ERANSKINAK  
29.

# 1 ABAGUNEA: PETROLIOAREN PREZIOAK JAISTEN JARRAITZEN DU


*2015ean beherantz jarraitu zuten prezioek 2014ko bigarren seihilekoan izandako jaitsiera handiaren ondoren*

2015eko lehen seihilekoan, behera egin zuten prezioek 2014koekin alderatuta; bigarren seihilekoan behera egin zuten, eta ekitaldiaren amaieran %35eko beherakada izan zuten 2014ko bukaerarekin alderatuta.

Prezioen jaitsiera horren arrazoi nagusia merkatuko gain-eskaintza da. 2014ko azaroan bere ekoizpen-kuotari eusteko abiarazitako politikari eustea erabaki zuen Petrolioaren Herrialde Esportatzaileen Erakundeak 2015. urtean. Merkatua bere kabuz uztea eta prezio baxuek kostu handiko bolumenak merkatutik ateratzeko zain egotea izan da estrategia.





# 2 FINDEGIKO JARDUERA



## 2.1 SARRERAK: HAINBAT JATORRITAKO GORDINKIA


*Hainbat jatorritako gordinkiak  
prozesatzeko ahalmena  
horniduraren eta lehiakortasunaren  
gaineko bermea da*




## 2.2 EKOIZPEN-PROZESUA

### EKOIZPENAREN LABURPENA

Koke-instalazioaren azken inbertsioari esker, fuela murriztu eta gasolioaren produkzioa handitu ahal izan dugu merkatuaren beharretara egokitzeko.



*Sortutako elektrizitatea: 678GWh.  
Batez besteko familia batek  
bi hilean kontsumitzen duen  
elektrizitatea sortzen du  
Petronorrek minutu batean*




## 2.3 IRTEERAK: SALMENTAK


*Petronorren jarduera, 2015ean, Bilboko portuko trafikoaren %46 izan zen.*

Petronorreko Itsasoko Terminaletik, Punta Luceron, 14,9 milioi tona petrolio igaro ziren, hots, %5,96ko hazkundea 2014an bildutako kantitateekiko.


Orotara 402 itsasontzik erabili dituzte Itsasoko Terminaleko bost atrakalekuak, hau da, %20ko igoera 2014an izan ziren ontzien aldean



# 3 INBERTSIOA



*PETRONORREK ahalegin handiagoak egin ditu inbertsioetan, 35 milioi euro baino gehiago erabiliz, eta 52 milioi euro inguruko mantentze-gastua egin du orotara*



# 4 SEGURTASUNA

*Aseguratzailleek 'ona' kalifikazioa eman diote Petronorren segurtasunari*

Aseguratzailleak Petronorreko instalazioetan izan ziren, eta Findegiko segurtasunaren maila hobetu dela egiaztatu dute. Oso kalifikazio positiboa da; izan ere, Petronorrek gorabeheren arriskuak gutxitzeko ezarritako gailuen eta neurrien multzoaren balorazio osoa hobetu da.

3,05 izan da (baja eragin duten istripuen kopurua lan eginiko milioi orduko) baja eragin duten istripuen Maiztasun Globaleko Indizea).

Baja eragin duten eta eragin ez duten istripuen Guztizko Maiztasun Indize Globala (Baja eragin duten eta eragin ez duten istripuen kopurua lan eginiko milioi orduko) 5,55 izan zen. Segurtasuna Kudeatzeko Sistemaren egiaztapenari eusteko auditoriak egin ditu Lloyds Register Quality Assurance-k (LRQA) OHSAS 18001/2007 Araua oinarri hartuta, eta auditoria horiek "lagungarriak izan dira Petronorrek Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Kudeaketaren eta prebentzioa erakundeko prozesuetan txertatzearen arloko jarduera onetarako".

2014an eginiko diagnostikoaren ondoren, "Segurtasunagatik, jardun" izeneko Ekintza Planean bildutako ekintza-kopuru nabarmena burutu da.

# 5 INGURUMENA


*“Airearen kalitatearen mailaren etengabeko jarraipenean agerian gelditu denez, findegiaren inguruan dagoena kutsadura gutxiko hiriguneetan dagoenaren antzekoa da”*

*Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruko airearen kalitateari buruz eginiko txostena*

Eutsi egin zaio aurreko urteetako joerari: atmosferara eginiko isuriak gutxitu dira eta, beraz, inguruko airearen kalitatearen maila onari eusten jarraitu dugu. **2015eko amaieran, airearen kalitatea neurtzeko kabina berria jarri zen Las Carreras auzunean (Abanto-Zierbena).**

Urtearen barruan, CO<sub>2</sub> isuriak gutxitzeko ekintzak burutu dira, hobekuntza operatiboen mailan nahiz teknologia eguneratzearen mailan. Jarduketa horiek **ISO 14064** borondatezko arauaren bidez egiaztatuta dira. Orotara, **63.805 tona CO<sub>2</sub> baliokideko murriztapena izan da.**

2015. urtean, isuriak gutxitzeko 2016rako ezarritako helburua lortu da, hain zuzen isuriak %20 gutxituta oinarri homogeneoetan. Xede berria ezarri da: **%35 gutxitzea 2020. urterako**



2015ean, **Ingurumeneko Baimen Integratua aldatzea lortu du** Petronorrek, ordurako indarrean dauden IBlak bateratzeko, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumeneko sailburuordearen uztailaren 27ko Ebazpenaren bidez.

# 6 PERTSONAK

*Petronorrek XVI. Hitzarmen Kolektiboa sinatu eta 45 pertsona gehiago kontratatu ditu 2015ean*

2015eko abenduaren 31n, guztira **1042 langile** zituen konpainiak plantillan. Horietatik **947 finkoak ziren eta 95 aldi baterakoak**.

**41,99 urtekoa** da plantilla operatiboaren batez besteko adina, eta konpainiako antzintasuna batez beste **12,11 urte** dira.

Guztira **142** emakume ari dira lanean eta, beraz, aurreko urteko kopurua gainditu da, hots, plantilla osoaren **%14,87** emakumeak dira.

Gaitasun desberdinak dituen pertsonal propioa **%1,67** da. Enplegu zentro bereziekin eginiko kontratazioen bidez sorrarazitako enplegu baliokidea erantsiz gero, azkenean **plantillaren %2,57** da. Hala, gainditu egiten da indarreko araudian galdaturikoa.

**Petronorreko Berdintasun Plana** onetsi da, konpainiaren barruan emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna errazteko.

2015. urtean, **gune kardiobabestua** sortu da gure konpainiako instalazioetan **14 desfibriladore** jarrita.

Segurtasun eta Osasun Batzordearen baitan konpromisoa lortu da **adizioen aurrezaintzarako programa** bat abiarazteko, tabakoaren, alkoholaren eta beste droga batzuen kalteen aurrezaintzara eta tratamendura bideratuta.

# 7 KONPROMISOA INGURUNEAREKIN

*Aurten, iraunkortasun-plana onetsi da eta, horren ondorioz, ageriago gelditzen da konpromisoa*

Gure iraunkortasun plan zabalaren baitan, gizarte taldeetatik hurbilen dauden babes eta mezenasgo ekintzak dira.

Kultura, kirola eta gizarte jarduerak dira gure jarduera dagoen eremuko alderdirik dinamikoenak. Petronorrek konpromisoa du gizarte ingurunearekin, Zierbena, Muskiz eta Abanto-Zierbenako gizarte talde zabalaren ekimenak sustengatuz.

Petronorrek 2015ean gizarte inbertsiorako hitzarturiko 600.000 euroren hartzaileak dira 100 erakunde baino gehiago eta haien jarduerak, hain zuzen, gizarte babesera eta mezenasgora daude bideratuta

# 8 ASFALNOR

*Asfalnor gure filialaren asfalto salmentetan %5eko hezkundea izan da 2014aren aldean.*

Asfalnor gure filialaren asfalto-salmentetan %5eko hezkundea izan da 2014aren aldean. Izan ere, obra nagusietarako produktua hornitu da Bizkaian (Autzaganeko tunela, Bilbo metropolia mantentzea, Gerediaga-Elorrio igarobidea), AP-68 autobidearen artapena Errioxako tartean, Deskargako bidea Gipuzkoan eta Bideko Autobidea eta AP-15 autobidea Nafarroan, baita Petronorren findegiaren eraginpeko eremuko obrei eta bezeroei dagokienez ere.

2015ean, eutsi egin zaie betunaren nazioko eta atzerriko operadoreekiko posizioei. Horretarako, bezeroak fidelizatu dira urteko kontratuekin, logistika eremu geografikoen arabera hobetu eta produktu-sorta guztiak bereganatu dira REPSOLEkin akordioa lortuta, betiere aukerarik onenak hautatuz eta kuotaren alde eginez, ez soilik betun asfaltikoei dagokienez, baizik eta emultsioei eta betun aldatuei dagokienez ere bai.



# 9 GOBERNAMENDUA

## ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

---

### PRESIDENTEA

D. Emiliano López Atxurra

### KONTSEILARI DELEGATUA

D. Andreu Puñet Balsebre

### KONTSEILARIAK

D. José Ignacio Arrieta Heras

D. Eduardo Becerril Leronés

D. Jesús Fernández de la Vega Sanz

D. Pedro Fernández Frial

D. Melchor Gil Llanos

D. Maximiliano Jacob Urruticoechea

D. José Manuel de la Sen Larrea

D. Guzmán Solana Gómez

D. Roberto Velasco Barroetabeña

D. Jose María Zalbidegoitia Garai

D<sup>a</sup>. María Victoria Zingoni

### IDAZKARIA

D<sup>a</sup>. Raquel Ruiz Juárez

## AUDITORIA BATZORDEA

---

### PRESIDENTEA

D. José María Zalbidegoitia Garai

### KIDEAK

D. Pedro Fernández Frial

D. Roberto Velasco Barroetabeña

### IDAZKARIA

D<sup>a</sup>. Raquel Ruiz Juárez

## ZUZENDARITZA

---

### PRESIDENTEA

D. Emiliano López Atxurra

### KONTSEILARI DELEGATUA

D. Andreu Puñet Balsebre

### ZUZENDARI EKONOMIKO FINANTZARIOA

D. José Luis Arredondo Argul

### PERTSONA, ANTOLAKETA ETA HARREMAN INSTITUZIONALEN ZUZENDARIA

D. José Ignacio Zudaire Arana

### FIDAGARRITASUN ETA MANTENTZEAREN ZUZENDARIA

D. José M<sup>a</sup> Montserrat Aguade

### INGENIARITZA ETA GARAPENAREN ZUZENDARIA

D. Francisco Fernández Bereciartua

### EKOIZPEN ZUZENDARIA

D. Manuel Núñez Marcos

### PROGRAMAZIO, LOGISTIKA ETA FINDEGIKO PRODUKTUEN SALMENTEN ZUZENDARIA

D. Juan Carlos Ramírez Camacho (\*)

### SEGURTASUN, INGURUMEN ETA KALITATEAREN ZUZENDARIORDEA

D. Rafael Orejas Contreras

(\*) Zuzendaritza Batzordearen eraketari dagokionez, 2015eko maiatzaren 8an Juan Carlos Ramírez Camacho izendatu zen Programazio, Logistika eta Findegiko Produktuen Salmenten zuzendari, Industria eta Trading Arloko zuzendari exekutiboa den Lourdes Rodríguez Gutiérrez andrearen orde. Berari ere eskerrak eman nahi dizkiegu eginiko lanagatik.

# 10 DATU EKONOMIKOAK

*2015eko ekitaldiak inflexio puntua ekarri du emaitzen aldetik. 65,5M€-ko galerak izatetik 197,7M€-ko etekinak izatera igaro da konpainia 2015. urtean*

## DATU EKONOMIKO FINANTZARIOAK. EMAITZAK

	MAGNITUDEAK	2015	2014	ALDAKUNTZAREN % 2015 / 2014
NEGOZIO-ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA	milioi €	5.390,7	6.680,8	-19,3
USTIAPENAREN EMAITZA	milioi €	237,4	-139,3	270,4
EBITDA (INTERESAK, AMORTIZAZIOAK, ZERGAZ ETXAK BAINO LEHENAGOKO EMAITZAK)	milioi €	282,1	-46,0	713,3
EKITALDIKO EMAITZAK	milioi €	197,7	-65,5	402,0

## FINDEGIKO JARDUERA

	MAGNITUDEAK	2015	2014	ALDAKUNTZAREN % 2015 / 2014
GORDINKIAREN ETA BESTE LEHENGAI BATZUEN PROZESUA	milaka tona	10.489	9.962	5,3
PRODUKTUEN SALMENTAK	milaka tona	10.876	10.096	7,7
NAZIKO MERKATURA	milaka tona	6.396	6.066	5,1
KANPOKO MERKATURA	milaka tona	4.480	4.030	11,2

## DATU EKONOMIKO FINANTZARIOAK. BALANTZEA

	MAGNITUDEAK	2015	2014	ALDAKUNTZAREN % 2015 / 2014
AKTIBO GUZTIA	milioi €	1.978,0	2.156,3	-8,3
EZOHIKO AKTIBOA	milioi €	1.401,7	1.465,0	-4,3
EZOHIKO AKTIBOKO INBERTSIOAK	milioi €	-63,2	21,2	-398,2
ONDARE GARBIA	milioi €	813,8	616,3	32,0

## FINANTZA-RATIOAK

	MAGNITUDEAK	2015		ALDAKUNTZAREN % 2015 / 2014
ZOR GARBIA	milioi €	714,1	1.131,2	-36,9
KAPITAL ERABILIA	milioi €	1.527,9	1.747,5	-12,6
ZOR GARBIA / KAPITAL ERABILIA	%	46,7	64,7	-27,8

## FINTZEAREN NEGOZIOKO ERREFERENTZIA-EREMUA

	MAGNITUDEAK	2015	2014	ALDAKUNTZAREN % 2015 / 2014
BRENT DATED BATEZ BESTEKO ERREFERENTZIAKO PETROLIOAREN PREZIOA	\$ / upela	52,39	98,95	-47,1
BRENT DATED PREZIOA URTE BAKOITZA BUKATZEAN	\$ / upela	35,74	54,97	-35,0
ECB BATEZ BESTEKO DOLAR/EURO TRUKE-TASA	\$ / upela	1,11	1,33	16,5
DOLAR/EURO TRUKEA URTE BAKOITZA BUKATZEAN	\$ / upela	1,09	1,21	9,9

# 11 ERANSKINAK

## LEHENGAIEN ESKURAKETAK

JATORRIA	2015		2014	
	TONAK	%	TONAK	%
ERRUSIA	1.573.314	15,82	2.704.111	28,35
MEXIKO	2.006.966	20,18	1.738.732	18,23
IPARREKO ITSASOA	1.975.921	19,87	1.398.004	14,66
KOLONBIA	1.041.356	10,47	1.180.355	12,38
MENDEBALDEKO AFRIKA	1.952.074	19,63	838.945	8,80
EKIALDE ERTAINA	734.490	7,39	665.651	6,98
VENEZUELA	443.187	4,46	434.238	4,55
AFRIKAKO IPARRALDEA	85.443	0,86	250.082	2,62
KANADA	76.736	0,77	155.170	1,63
BESTE BATZUK	55.595	0,56	172.296	1,81
<b>GORDINKIAK, GUZTIZKO PARTZIALA</b>	<b>9.945.082</b>	<b>100,00</b>	<b>9.537.584</b>	<b>100,00</b>
BESTE LEHENGAI BATZUK	523.040		348.662	
<b>GUZTIZKO OROKORRA</b>	<b>10.468.122</b>		<b>9.886.246</b>	

## EKOIZPENAREN LABURPENA

PRODUKTUA	2015		2014		ALDAKUNTZAREN % 2015 / 2014
	TONAK	%	TONAK	%	
GASOLIOA	4.836.828	48,64	4.584.339	48,46	5,51
FUEL-OLIOA + GOV	1.084.220	10,90	941.314	9,95	15,18
GASOLINA	1.828.214	18,38	1.631.457	17,25	12,06
NAFTAK	664.637	6,68	612.880	6,48	8,44
ASFALTOAK	231.646	2,33	216.846	2,29	6,83
G.L.P.	176.329	1,77	243.311	2,57	-27,53
PROPILENOA	80.663	0,81	100.686	1,06	-19,89
KEROA ETA KARB. ERREAKTOREAK	104.616	1,05	54.971	0,58	90,31
KOKEA	806.835	8,11	921.876	9,75	-12,48
BESTE BATZUK(*)	130.941	1,32	152.229	1,61	-13,98
<b>GUZTIRA</b>	<b>9.944.929</b>	<b>100,00</b>	<b>9.459.909</b>	<b>100,00</b>	<b>5,13</b>

(\*) Sufrea eta karbono dioxidoa barne

## ENERGIA ELEKTRIKOA (MILIOI KWH)

	2015	2014	ALDAKUNTZA %
SORTUA	677	680	-0,4
KONSUMITUA	558	497	+12,3

## FINDEGIKO INBERTSIOAK

MILA EURO	2015	2014
INSTALAZIO ETA TRANSFORMAZIO BERRIAK	0	1.793
INSTALAZIOEN ETA AZPIEGITUREN HOBEKUNTZA	19.382	13.967
KONSUMOEN AURREZPENA ETA MERMEN MURRIZTAPENA	8.877	5.122
INGURUMENA	1.990	2.969
SEGURTASUNA	4.664	2.306
KONTROL AURRERATUA ETA INFORMAZIO-SISTEMAK	922	402
<b>GUZTIRA</b>	<b>35.834</b>	<b>26.559</b>

## FINDEGIKO MUGIMENDUAK

	2015 TONAK	2014 TONAK	ALDAKUNTZAREN % 2015 / 2014
<b>SARRERAK</b>			
GORDINKIA	9.835.756	8.160.377	20,53
BESTE LEHENGAI BATZUK	452.903	1.492.352	-69,65
GUZTIZKO PARTZIALA	10.288.659	9.652.729	6,59
BESTE PRODUKTU BATZUK	206.265	388.959	-46,97
<b>SARRERAK, GUZTIRA</b>	<b>10.494.924</b>	<b>10.041.688</b>	<b>4,51</b>
<b>IRTEERAK</b>			
ESPORTAZIOAK ETA KABOTAJEA	4.401.624	4.016.337	9,59
<b>IRTEERAK, GUZTIRA</b>	<b>4.401.624</b>	<b>4.016.337</b>	<b>9,59</b>
<b>MUGIMENDUAK, GUZTIRA</b>	<b>14.896.548</b>	<b>14.058.022</b>	<b>5,96</b>

## LABURPENA MERKATUEN ARABERA

SALMENTAK	2015		2014	
	TONAK	%	TONAK	%
NAZIOKO MERKATUAK: ERREGAIK	6.197.378	56	5.905.907	58,50
KANPOKO MERKATUA	4.678.291	44	4.189.766	41,50
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.875.669</b>	<b>100,00</b>	<b>10.095.673</b>	<b>100,00</b>

## ERREGAIEN NAZIOKO MERKATUA

SALMENTAK	2015	2014	ALDAKUNTZAREN % 2015 / 2014
	TONAK	TONAK	
REPSOL COMERCIAL DE PRODUCTOS PETROLÍFEROS S.A	2.999.349	2.752.346	8,97
REPSOL PETROLEO, S.A.	835.206	798.897	4,54
REPSOL BUTANO, S.A.	149.415	170.788	-12,51
BESTE BATZUK	2.412.171	2.343.922	2,91
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.396.141</b>	<b>6.065.953</b>	<b>5,44</b>

## NAZIOKO MERKATUA PRODUKTUEN ARABERA

	2015 TONAK	2014 TONAK	ALDAKUNTZAREN % 2015 / 2014
<b>SALMENTAK</b>			
GASOLIOAK	4.593.792	4.499.928	2,09
GASOLINAK	513.744	600.204	-14,41
KOKEA	366.054	282.628	29,52
LPG	149.415	170.788	-12,51
SUFREA	105.598	128.814	-18,02
ASFALTOAK	244.430	212.528	15,01
KEROSENOA	85.075	71.200	19,49
FUEL-OLIOAK	315.693	69.707	352,89
KARBONO DIOXIDOA	22.130	29.949	-26,11
HEXANOA	210	207	1,45
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.396.141</b>	<b>6.065.953</b>	<b>5.44</b>

## KANPOKO MERKATARITZA PRODUKTUEN ARABERA

	<b>2015</b> TONAK	<b>2014</b> TONAK	<b>ALDAKUNTZAREN %</b> <b>2015 / 2014</b>
<b>SALMENTAK</b>			
GASOLINAK	1.534.725	1.092.177	40,52
GASOLIOAK	1.168.799	775.974	50,62
FUEL-OLIOAK	578.343	695.743	-16,87
KOKEA	416.478	656.453	-36,56
NAFTAK	655.613	598.382	9,56
LPG	107.883	183.463	-41,20
BUNKERRA	17.687	27.528	-35,75
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.479.528</b>	<b>4.029.720</b>	<b>11,16</b>

## ESPORTAZIOA MERKATUEN ARABERA

JOMUGA	TONAK	%
EUROPA	2.438.663	54,44
AEB	1.534.724	34,26
AFRIKA	362.090	8,08
ASIA	126.364	2,82
GAINERAKOAK	17.687	0,39
<b>ESPORTAZIOA, GUZTIRA</b>	<b>4.479.528</b>	<b>100</b>

## **SORTUTAKO ZERGA**

### **OGASUNEI ORDAINTZEA**

**MILIOI €**

BIZKAIKO FORU OGASUNA

466,29

BESTE OGASUN BATZUK

0,27

CLH. ZERGA-BILKETA:  
FORU OGASUNA

272,16

CLH. ZERGA-BILKETA:  
A.E.A.T

613,31

### **UDALAK**

TOKIKO ZERGA-ORDAINKETA,  
GUZTIRA

4,35

**SORTUTAKOAK, GUZTIRA**

**1.356,33**



**PETRÓLEOS DEL NORTE S.A.**

Muñatones eraikina  
San Martin, 5 zk.  
48550 MUSKIZ (Bizkaia)

1418 posta kutxa - 48080 Bilbo

T 946 357 000

F 946 357 295

**[www.petronor.eus](http://www.petronor.eus)**





[www.petronor.eus](http://www.petronor.eus)